

# NAFARROAKO XXI. KIROL JOKOETAKO TALDEKAKO TXAPELKETETAKO AZKENEKO FASEA.

Arrano Elkartea Infantil mailan, Orvina Alebin mailan eta Paz de Ziganda-Sanduzelai Benjamin mailan dira Nafarroako talde txapeldunak. Zorionak jokalariei eta bere arduradunei (Iñaki Arrizibita, Iñaki Rebole eta Alvaro Ablanedo, hurrenez hurren).

## INFANTIL MAILAN.

Iruñeko Orvinaren lokalean jokatu zen 2008.go apirilaren 26an eta 27an (larunbata eta igandea). 6 taldek parte hartu zuten, Liga moduan. Talde guztiak zuzenean sailkatu ziren Azkeneko Fasera.

### AZKENEKO SAILKAPENA.

- 1) **Arrano Elkartea – 14'5 puntu.**
- 2) Maristas A – 13 puntu.
- 3) Mikel Gurea-Gazte Berriak – 11'5 puntu.
- 4) Amaiur Ikastola – 10 puntu.
- 5) Santa Ana Carrefour – 7'5 puntu.
- 6) Maristas B – 3'5 puntu.

Arrano Elkarateak Nafarroako bere lehenengo titulua eskuratu zuen, infantil mailan izan bazen ere. Ederki ibili zen, neurketa guztiak irabazita (hiru aldiz ozta-ozta).

Bigarren jardunaldian, 1'5-2'5 gainditu zuen Maristas A eta hori erabakigarria gertatu zen, talde hori bigarren (puntu eta erdira) geratu baitzen. Pablo Urriza eta Olas Arrizibita berdindu zuten, lehenengo mahaian; bigarrenean, Arranoko Gorka Losantosek Aritz Oscozi irabazi zion; hirugarrenean, Maristasko Eva Moreno Harkaitz Goienari nagusitu zitzaion; laugarrenean, Arranoko Xabier Lusarretak Diego Hualde gainditu zuen.

Hirugarren jardunaldian, Mikel Gurea-Gazte Berriak taldea menperatu zuen: 3-1. Hiru puntura, hirugarren tokian, geratu zen talde hori.

Maristas Ak 2'5-1'5 gainditu zuen Mikel Gurea-Gazte Berriak taldea azken jardunaldian eta bigarren postua ziurtatu zuen horrela.

**Hauek izan ziren Arrano Elkartea talde txapeldunaren jokalaria: Olast Arrizibita Iriarte, Gorka Losantos Nuin, Harkaitz Goiena Baroja eta Xabier Lusarreta Perez. Arduraduna: Iñaki Arrizibita Legarre.**

Hauek izan ziren Maristas A talde txapeldunordearen jokalaria: Pablo Urriza Iricibar, Aritz Oscoz Irurozqui, Eva Moreno Unanua eta Diego Hualde Martin. Arduraduna: Jonas Blanco Sisniega.

Hauek izan ziren Mikel Gurea-Gazte Berriak hirugarren sailkatuaren jokalaria: Jonathan Chamorro Garcia, Fermin Anaut Etxeberria, Ivan Lopez Losarcos, Iñigo Galar Labayen, Iñaki Martinez Urricelqui eta Claudia De Sola Ayesa. Arduraduna: Mikel Razkin Fraile.

## **ALEBIN MAILAN.**

Tuteran jokatu zen 2008.go apirilaren 27an. 6 taldek parte hartu zuten, Liga moduan.

### **AZKENEKO SAILKAPENA.**

- 1) Orvina – 15'5 puntu.**
- 2) Sanduzelai-Paz de Ziganda – 15 puntu.
- 3) Santa Ana Carrefour – 10'5 puntu.
- 4) Teresianas – 8'5 puntu.
- 5) Peralta – 7'5 puntu.
- 6) Gazte Berriak – 3 puntu.

Iparraldeko Eremuko Hasierako Fasean bezala, Orvina nagusitu zen Finalean. Hori bai, askoz modu estuagoan. Puntu erdiak bereizi zuen Sanduzelai-Paz de Ziganda bigarren sailkatuarengandik. Haien artean berdinketa gertatu zen: 2-2.

**Hauek izan ziren Orvina talde txapeldunaren jokalaria: Luis David Jimenez Almeida, Mikel Ortega Lopez, Nekane Ibero Etxeberria eta Jon Aristu Garde. Arduraduna: Iñaki Rebole Arbea.**

Hauek izan ziren Sanduzelai-Paz de Ziganda talde txapeldunordearen jokalaria: Urko Andueza Sanchez, Iker Oraa Iribarren, Julen De Miguel Palacio, Xabier Eransus Ganuza eta Julen Bueno Tapiz. Arduraduna: Alvaro Ablanedo Jimenez.

Hauek izan ziren Santa Ana Carrefour hirugarren sailkatuaren jokalariaik: Iñigo Arriazu Garcia, Alejandro Bernal Gomez, Sergio Melero Royo, Leonel Lopez Santos eta Elisa Cia Gayarre. Arduraduna: Patxi Sesma Rubio.

## **BENJAMIN MAILAN.**

Tuteraan jokatu zen 2008.go apirilaren 26an. 6 taldek parte hartu zuten, Liga moduan.

### **AZKENEKO SAILKAPENA.**

- 1) Paz de Ziganda-Sanduzelai – 17'5 puntu.
- 2) Ardoi-Zizur Fischer – 12 puntu.
- 3) Parkets German – 11'5 puntu.
- 4) Peralta A – 8'5 puntu.
- 5) Peralta B – 6 puntu.
- 6) Mikel Gurea Kramnik – 4'5 puntu.

Gazte Berriak Topalov taldeak Iparraldeko Eremuko Fasea irabazi zuen, baina kale egin zuen Azkeneko Fasea jokatzeko orduan: Ez zen joan. Bere postua Mikel Gurea Kramnik taldeak bete zuen.

Paz de Ziganda-Sanduzelaik ondo baino hobeto aprobetxatu zuen hutsunea eta erraz nagusitu zen. Ardoi-Zizur Fischer bigarren sailkatua, adibidez, 3'5-0'5 menperatu zuen. Sailkapen Fasean bigarren geratu zen Paz de Ziganda-Sanduzelai taldea Iparraldeko Eremuan.

Hauek izan ziren Paz de Ziganda-Sanduzelai talde txapeldunaren jokalariaik: Arkaitz Garcia Perez, Beñat Ancin Arbonies, Peio Oraa Lopez, Oier Zalba Huarte eta Eduardo Lopez Diaz. Arduraduna: Alvaro Ablanado Jimenez.

Ardoi-Zizur Fischer talde txapeldunordearen jokalariaik hauek izan ziren: Pablo Zabalza Garraza, Juan Jose Agüero Moraga, Julen Martinez Ayesa eta Javier Ayape Amezqueta. Arduraduna: Mikel Huerga Leatxe.

Parkets German hirugarren sailkatuaren jokalariaik hauek izan ziren: Ivan Romano Garcia, Elvira Aguado Fernandez, Blanca Aguado Fernandez eta Marcos Jimenez Escudero. Arduraduna: Patxi Sesma Rubio.

**2008-04-27.**

**Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.**